

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Lanaren etorkizunari buruzko jardunaldia egingo da ostiral honetan, martxoaren 1ean, eta izena emateko epea irekita dago

*Izena emateko epea bihar, otsailaren 27an (asteazkena) amaituko da*

Asteartea, 2019.eko otsailak 26

Nafar Lansarek (NL), Eskubide Sozialetako Departamentuaren mendekoak, Lanaren Nazioarteko Erakundearekin (LNE) batera antolatu duen "Lanaren Etorkizuna" jardunaldian izena emateko epea ireki du.

Ekitaldiaren helburua da erronka berrien gaineko hausnarketa egitea eta enplegu-arloan garatu beharreko politika publikoetarako nahiz lege-erreformarako ekarpenak bilatzea. Ekitaldia **Civican Auditorioan egingo da, ostiral honetan, martxoaren 1ean, 9:00etatik 14.00etara**; programa ondorengo [estekan](#) kontsulta daiteke.

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak hasiera emango dio jardunaldiari goizeko 09:00etan. Ondoren, Prospektiker enpresako Ibon Zugasti (prospektiba eta plangintza estrategikoan aditua den taldea) eta Humberto Bustince, NUPEko Smart Cities Institutukoa eta katedraduna, "Etorkizuneko lanez" arituko dira. Horrez gain, Tomás Arrieta Herasek, Lan Harremanetako Kontseiluko lehendakariak, eta Ariadna Trillasek, Alternativas Económicasko kazetariak, lan-harremanen bilakaera azalduko dute 10:30ean. Beranduago, berriz, Oriol Homs Ferret soziologoak eta NUPEko Gizarte Politikako irakaslea den Begoña Pérezek honako hau aurkeztuko dute: "Enpleguaren babesa eta horren esanahi soziala".

Aurten, berrikuntza gisa, jardunaldian izango dira ondorengo agente sozio-ekonomikoak: Nafarroako Enpresarien Konfederazioko (NEK) lehendakaria, José Antonio Sarria Terrón; Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresa Konfederazioko (CEPES) lehendakaria, Ignacio Ugalde Barbería; Nafarroako Comisiones Obrerasko idazkari nagusia, Chechu Rodríguez Gil; eta UGTko Zuzendaritza Batzorde Konfederaleko Nazioarteko idazkari Jesús Gallego. Ordezkar horiek mahai-inguruan parte hartuko dute eguerdiko 13:00ean.

Azkenik, Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak, Manu Ayerdik, eta LNEren Espainiako bulegoko zuzendariak, Joaquín Nietok, amaiera emango diote saioari 14:00etan.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak, "LNEren Mendeurrenaren barruko Lanaren Etorkizunari buruzko Ekimenaren" esparruan, mundu osoan eztabaida zabala bultzatu du enpleguaren etorkizunaren inguruan, Lanaren Nazioarteko 2019ko Biltzarrean jorrazteko, arlo horretan gertatzen ari diren aldaketak ulertzearen eta horietatik etorkizunerako

eratorritako erronka handiei behar bezala erantzutearren. Horretarako, herrialde guztiei gonbita luzatu die eztabaida horretan parte har dezaten.

Lanaren etorkizunari buruz ostiral honetan, martxoren 1ean, egingo den jardunaldira joateko, izena eman behar da ondorengo [estekaren bitartez](#) bihar, asteazkena, otsailaren 27rako.